

# Noaia!!!

www.noaia.com



Kanpaina eta gero,  
hautesleen txanda



Jendetza eta umorea nagusi  
Inauteri egunean

**PSU**  
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta imprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

**iratze**

NATURDENDA

[www.iratze.es](http://www.iratze.es)

## ESKAITZA BERRIA

JOSE MARIA CAÑETE NATURISTAREN ZERBITZUA

TRATATUKO DITUEN ZENBAIT GAIXOTASUN:

- KOLESTEROLA, DIABETEA, TENTSIOA...
- AZALEKO ARAZOAK (DERMATITISA, PSORIASISA...)
- ALERGIAK
- SINUSITIS, OTITIS
- INMUNOLOGIA SISTEMA ARAZOAK
- ODOLEKO ARAZOAK
- MINBIZIA
- ARTROSISA, ERREUMA
- MENOPAUSIA, OSTEOPORIS
- EMANKORTASUN TRATAMENDUAK
- DIGESTIO ARAZOAK. IDORRERIA
- PROSTATAKO ARAZOAK
- E.A.

zure txanda alde zurretik eskatu

943 36 12 76 zubiaurrenea 10, USURBIL

## Zer erreko litzateke erraustegian?

Etxeko hondakin arriskutsuak	%0,14
botika, medikamenduak	%0,05
pilak	%0,06
bestelako hondakin arriskutsuak	%0,03
<b>Bestelakoak</b>	<b>%5,15</b>
oihalak	%2,72
landutako zura	%2,38
egurra	%0,05

ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASEPERRA HERRIA  
**BIZIRIK**

**Guzti-guztia  
birziklatu  
edo  
berrerabiltzeko  
gaia!**

\*Iturria: San Markosko  
Mankomunitatearen Hiri  
Hondakinei buruzko Plan  
Integrala 2002-2016.

Osasun-tekniko batzordea





## Albistea iruditan !!

## Ia oharkabean pasa da hauteskunde kanpaina



**A**ralarreko ordezkari nagusiak bertaratu ziren Sutegira, otsailaren 18an egin zen ekitaldian. Patxi Zabaletak eta Jon Abriek datorren legegintzaldirako egitasmoen nondik norakoak azaldu zituzten.



**E**zker Abertzaleak, aldiz, pasa den igandean egin zuen hauteskundeetako ekitaldia. Herritar ugari bertaratu ziren eta jada klasikoa bihurtu den familia argazkia atera zuten frontoi atzean.



**A**stlehenean, Jesus Mari Larrazabal Eusko Alkartasunako Gipuzkoako hautagaiak hitzaldia eskaini zuen Usurbilen. Arratsalde partean, hauteskunde kanpainako furgoneta ere ibili zen herrian.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com  
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com  
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com  
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

INAUTERIETAKO ARGAZKIAK	8. OR.
HAUTESKUNDEEI BURUZKO GEHIGARRIA	10. OR.
KANTU-JIRA, LARUNBAT HONETAN	19. OR.
BURUNTZALDEA.ORG WEBGUNE BERRIA	22. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Otar-Goxo**  
Elkargutak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Ojandegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65



LUIS ARANALDE

## Dogma ala errukia?

Poza hartu nuen Eluana hil zela jakin nuenean. Barka, hiltzez amaitu zuela entzutean. Hamazazpi urte zeramatzan bizi gabe, begietan argirik gabe, "maite zaitut" esan gabe, entzun gabe, ez negar ez irri egin gabe, musikaz gozatu gabe, goizeko argia edo arratseko koloreak miretsi gabe. 17 urte pasa ditu hiltzen. Jari zioten sondak ez zion bizia ematen, amaigabeko heriotza baizik; agonia luzatu besterik ez. Zeuk ere atsedean hartzen duzu (zer esanik ez bere gurasoek) kalbario luzeegi hori bukatu dela jakitean". Horrela idazten zuen duela egun batzuk nik asko miresten dudana teologo batek: Joxe Arregik. Frantziskotarra, Hemen aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria.

"Hilketa higuinarriztat" jo du Vatikanok; epaile eta borrotero deitu diote Eluanaren aitari Italiako Gotzain batzuek. Berlusconiren ustez, berriz, heriotzara kondenatua izan da neska gajoa. Auzo lotsa ematen dute. Klinikatik irteterakoan pintada mordoa jarririk zegoen nonahi Eluanaren aitaren aurka. Poliziak eskolta jarri dio. Baina, nola erabil daitezke horrelako hitzak aita baten kontra? Noiz joan dira buruzagi erlijioso eta politikoa ultraortodoxo horiek aitarekin hitz egitera, beren gertutasuna agertzerako, nahigabek bezalako bere hitzak entzuteko, alabaren irudi kupigarria ikusteko? Inoiz irakurri ote zuten Eluanaren aitak idatzi zuena, alegia, "amaierarik gabe bizitzera behartzea okerragoa zela heriotzara kondenatzea baino"?

Pontifikatu bai, beren ustez egia edo dogma borobila dena aldarrikatu bai. Baina, dogma, lege, arau eta tradizio guztien gaineratik daude errukia, gertutasuna, bihozberatasuna. Erlijioaz asko jakingo dute; ebanjelioaz zipitzik ez. Ebanjelioaren arabera pertsona bakoitzari zorientatu izaten laguntzea da egia gorena, lege nagusia.

Zalantzarik gabe, bizia sakratua da. Baina, bizia duintasunez bizi behar da, bizidun bakoitzari dagokion duintasunez. Sinestendunak bal-

din badira goian aipaturiko guru horiek, Jainkoa dela biziaren iturri esango dute, bizia dela berak eskaini digun erregaliarik ederrena. "Baina, erregalatzen duenak ez du eskubiderik gordetzen. Iturriak ez du uraren norabidea kontrolatzen. Bizi horren erantzukizuna guztiz gurea da. Gure eskuetan utzi du bizia" (Joxe Arregi).

Jakina, gutako bakoitza ez da biziaren jabe bakarra; besteekin batera erabaki behar dugu geure biziaz. Eta norbera gai ez denean, gertukoek hartu behar dute erabaki hori. Eluanaren kasuan bere gurasoek erabaki behar zuten eta horrela egin ere. Eta beren erabakia sakratua da. Eta denok errespetatu behar dugu; baita Vatikanok eta Berlusconik ere.

Ez nuke amaitu nahi gogoeta hau "azken borondateak edo bizi-testamentua" dokumentuaz zertxobait esan gabe. "Bizitza duinak heriotza duina merezi du, Eluanari ukatu zaiona luzaro", dio nire lagun Felipe Izagirrek. Gipuzkoako Heriotza Duinaren Eskubidearen bozeramailea da. Gipuzkoan 1 785 dira dokumentu hori sinatu dutenak. Neu ere firmatzeaz nago. Espainiako legeek ez dute onartzen eutanasia, baina, gaixoak adieraz dezake aldez aurretik zer nolako tratamendu klasea nahi duen zentzua balduta luzaro egon behar balu; eta hori onartzen du. Bizi-testamentua oso garrantzitsua da, Feliperen ustez, zeren zentzu eta libertate osoz hartzen baitira aldez aurretik heriotzari buruzko zenbait erabaki zail. 2004an jarri zen martxan bizi-testamentuaren erregistroa. Gehiengoa zainketa paliatiboan alde dago egoerak bueltarik ez duenean, etxean hiltzeko desira agertzen dute, oinazeak arintzeko anelgesia eskatzen dute tratamendu nagusi bezala, bizia artifizialki ez luzatzearen alde daude... Testamentu hau egiteak asko laguntzen dio familiari, horrela heriotzari dagozkion erabaki garrantzitsuenak hartuta baitaude.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

## Ika-mika!

### Hauteskundeak

Horrenbeste hitz jario boto bila. Demokrazia eta bakea ekarriko dutela erkidego honetara. Etxebizitza sozialak egingo dituztela. Krisiari aurre egiteko erantzunik egokiena berea dela. Soldata duina eskaintzen dutela entzun dugu norbait. Krisian azkeneko sartu ginela eta irteten lehenengoak izango garela. Madrilen erabaki beharrean Gasteizen erabakitzea hobea dela. Espainolak hartuko dutela lehendakaritza. Haur jai berri bakoitzeko dirulaguntza handiagoa emango dutela. Gazteentzat alokairuzko etxebizitzentzat diru laguntza gehiago emango dietela. Fiskalitate garbiago baten alde daudela. Berdintasunaren alde daudela. Pentsionistei diru laguntza gehiago emango dietela. Eskubide guztiak babestu behar direla. Alderdi Legearen aurka daudela. Politika bakarrik egin behar dela eta bla, bla, bla...

Baina lehenago larunbatean Bilbon gertatutakoaz zer esan dute? Soilki politika egite-

agatik atxilotu zituzten azken atxilotuetaz zer esan dute? Euskal preso politikoekin une labur bat egoteko senide eta lagunek derri-gorreetan egin behar izan dituzten (azken aste bukaeran bezala) milaka kilometro horiek ezabatzeko zerbait egiten ikusi dituzue edo beren programetan zerbait irakurri duzue? Ilegalizazioaren aurka zerbait egiten ikusi dituzue? Gero Euskal Herriko instituzio (udaletxe, foru, legebiltzar) ezberdinetan aurkeztutako 500 zerrenda baino gehiago ilegalizatu dituztela ikusi eta egoera horren aurka zerbait egin dutela ikusi duzue?

Hori bai, ilegalizazioaren ondorioz instituzioengatik kanporatuak (herrian ezagutu dugu) izan diren alderdiek lortutako emaitzak lotsa gutxirekin beraientzat hartzen (lapur hitza gehiegi omen da) ikusi ditugu azken hamarkada honetan eta gainera demokratikoki egin dutela esanez dabilta gaur egun ere. Krisiaren salbatzaileak baili-

ran azaltzen zaizkigu eta lehenengo egin (hori bai) dutena milaka milioiko irabaziak izan dituzten bankuei dirua eman dietela entzun diegu, bien bitartean langabezian edo etxeko inor lanean ez eta miseria gorrian geroz eta gehiago dauden familiak ditugu aldamenean.

Horrek aurrera, martxoaren lehenik aukeratutako zerrindari emango diot neure botoa. Ilegalizazioan oinarritutako eserleku pozoindurik nahi ez dudalako nire hautagaitza Usurbilgo udaletxean sinatutakoa izango da. Benetako demokrazia eta bakea nahi ditudalako Euskal Herriaren aldeko hautua egingo dut martxoaren lehen eta krisiak eragindako lantegi bateko langilea naizenez, milaka milioiko etekinak izan dituzten banku eta enpresa pribatuei diru publikoa erregalatzen aritu diren horiek salatuz nire hautua D3M izango da.

Orkatz\*

\* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

## Atez atekoari buruz hitz egiteko gonbita luzatu dio alkateak Gipuzkoako Ahaldun Nagusiari

**A**tez atekoaren birziklatze helburuak zeintzuk diren azaldu asmoz, biltzeko gonbita luzatu dio Xabier Mikel Errekondo alkateak Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olanori. Egunkaria itxi zuteneko sei-garren urteurreneko elkarretaratzean topo egin zuten biek aurreko ostiralean Andoainen. Errekondok hondakinen bilketa sistema berriaren inguruko nondik norakoak biltzen dituen eskuliburua eman zion Foru Aldundiko ordezkari nagusiari. Usurbildarren osasuna arriskuan jarriko duen erraustelantaren proiektua birplanteatzea ere eskatu zion alkateak Olanori.

Udaletik egindako gonbitari Foru Aldunditik jaso dezaketen erantzunaren zain egon behar bada ere, atez atekoari buruz hitz egiteko bi erakunderen arteko bilkura gertu egon liteke. Artean, Udalak herritarrekin bilera irekia egingo du, ostegun honetan arratsaldeko 18:30ean kiroldegian.

### Atalluko bilketa gunea, prest

Tren geltoki ondoko Atallu industria gunean zabalduko da herrian kokatu nahi diren hiru hondakin biltetako guneetako bat. Eraikuntza lanak amaitu dituzte. Atez ateko bilketa sistema berria martxan jartzen denean, landa-eremuko herritarrek bertara eraman ahal izango dituzte, aldeztatik aurretik etxean ondo bereizitako hondakin zati desberdinak. Atez ateko biltetatik kanpo



MARKEL OLAND ETA XABIER MIKEL ERREKONDOK BAT EGIN ZUTEN ANDOAINEN, EGUNKARIA ITXI ZENENKO 6. URTEURREN EKITALDIAN.

geratzen diren herritarren hondakinak jasotzeko beste bi bilketa guneak Zubietan eta Aginagan kokatuko dira.

### Materiala eskuragarri Sutegin

Atez ateko biltetarako materiala eskuratu ez duenak beste hitzordu bat du Sutegin. Asteleheneetik ostiralera, goizez 10:00-13:30 artean eta arratsaldez, 16:00-20:00 artean kultur etxean kokatua dagoen informazio bulegoan eskura litezke, bi ontzi marroiak, imana, gida eta kartela, behar adina informaziorekin. Gogoan izan, bestalde, edozein zalantza argitzeko zabalik jarraitzen duela bulegoak baita doako telefono zenbakiak ere: 900 776 776. E-posta berriz, honakoa da: [atezate@usurbil.net](mailto:atezate@usurbil.net)

### Ostegun honetan, herritarrekin bilera irekia kiroldegian

**L**aster martxan jarriko den atez ateko bilketa sistema berriari lotuta, Udalak beste bilera ireki bat antolatu du ostegun honetarako, **otsailak 26. 18:30ean kiroldegian**. Aurretik egindakoak bezala, oraingo bilkura ere irekia izango da.

Egun berean, baina goizez, atez ateko sistemaren aurkako plataformarekin bilduko da Udalak.

### Arsuaga auzunea

Bestalde, igaro den astelehenean atez ateko eragileak Arsuaga auzuneko 60-70 bat sendiekin bildu ziren, abian jarriko den hondakinei lotutako egitasmo berria azaltzeko.



BILERA ZALANTZAK ARGITZEKO ANTOLATUA IZAN DA.





KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Herriko toreroei



Aurten herrian sekulako giroa ibili Adugu goizean goizetik. Gure herriko koadrila hoberenak goizeko 12.30etarako prestatua zeukan zezenketa bat. Arratsaldean zezenketa izan genuen Etxe Maitiako toreroarekin eta pikadore lanetan San Estebango Rubio. Sekulako erakustaldia egin zuten, pena nik galdu egin nuela!

Goiz partean ere Txerriki taldekoak ere jo eta su ibili ziren txarangarekin batera herriko giroa alaitzen.

Giro ederrean etorri zen kafe garaia eta berriz ere kalejiran ibili ziren Gauerdi txarangarekin. Arratsalde partean batukada izan genuen herriko hainbat koadrilen laguntzarekin jendeari barre eginarazten ibili zirenak. Aurten gaiari jarraiki mundu guztia olinpiarrez jantzita ibili da.

Olarrondon egindako afariak ere sekulako arrakasta izan zuen eta 100dik gora bildu ziren. Poza ematen du honelako giroa izatea, beraz idatzitxo honekin herriko jendeari eta batik batik herriko talderik *martxosoenari*, eskerrak eman nahi nizkioke herriko giroa alaitzen saiatzeagatik. Gora herriko koadrilarik onena! Bai bai zuetaz ari naiz, toreroa eta bere koadrila. Eskerrik asko horrelakoak izateagatik, ni



handitzen naizenean zuek bezalakoa izan nahi dut. Gora Inauteriak eta gora herriko *martxosok!*

AGINAGA

AITOR HELETA

## Errausketari intsumisioa atez ate



Otsailaren 20an, 20 urte bete dira, militar espainolen aurrean aurreneko intsumisioak aurkeztu zirela. 12 urtetan Hego Euskal Herrian 12.000 gaztek, borroka honekin bat egin genuen, asko kartzelaratuak izan ziren. Ezin da esan "guda" bat irabazi genuenik baina bai bataila bat, ondoren derrigorrezko zerbitzu militarra ezabatu zutelako baina ez zen lortu ez ejertzitza, ez industria militarra ezabatzea.

Gaur egun Euskal Autonomi Elkartearen agintean dauden talde politikoetako ordezkari asko ikusten dugu goratzen urte horietako borroka antimilitarista eta atzetik euskal industri militarri dirulaguntzak ematen dizkiote ondoren Iraken, Palestinan, eta munduko txoko askotan erabiliko diren armak fabrikatzeko. Ez hori bakarrik, gure unibertsitatea eta hezkuntzako aurrekontuak erabiltzen dituzte horiek garatzeko.

Ondo dago zerbaiten kontra zaudela esatea baina urrats bat haratago joan behar da, errausketaren kontra nago, hiperekologista naiz, superagenda 21. Usurbilen, gaur egun dagoen zabor kudeaketaren aurrean alternatiba bat lantzen ari da eta penagarria da udaletxeko zinegotzi batzuk hartu duten jarrera.

Zorionak 90 aginagatarrei bakoitzak bere etxean konpostatzeko aukera egin dutelako. Aldi berean, oraindik aukera duen edonor animatu nahi dut, etxean konpostatzera.

ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

## Truke itxi da

Hiru hamarkada eta atzera begirada bat. Hurre auzoa, adreilu gorritzko etxeekin hasi zen. Auzoa bikaina geratu zen, etxeak ziztu batean saldu ziren. Oraingo aldean prezioa baxua zen, nahiz eta Orduan ere nahiko lan izaten zen ordaintzeko. Berehala bete zen auzoa jendez eta jarraian dendak ere ireki ziren, janari denda, kinkildegia, arrandegia, harategia, kirol denda, arropa denda.

Gerora, ordea, bestelakoa ezagutu dugu eta denda guztiak ixten joan dira. Oraingoan Truke dendari tokatu zaio eta gaur egun irekita geratzen den bakarra Alkorta harategia dugu.

Orain beste etxe multzo bat ari dira egiten geratzen zitzai-gun zelai eder bakarrean. Baina, krisiak bete bete harrapatu ditu eta zailtasun handiak dituzte etxebizitzak saltzeko. Nahiko egoera iluna ikusten dugu beraz auzoan.



Dena dela, astebukara honetan kontu ilunak ahazteko, Inauteriak izan ditugu. Penak ahaztu, moztiroak jantzi eta jai giroan murgiltzeko aukera ederra izan dugu.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Auzokoak ere Inauteritan



Aurtengoak ere iritsi dira ba eta ezin esango da ezerezean pasa direnik. Olinpiar jokoak izan da aurtengo gaia eta asko izan dira hori jakitean bertara gerturatu diren mundutar kirolariak. Beste batzuek berriz aukera hau aprobetxatu nahi izan dute herritarren aurrean beren abilezien erakustaldia egiteko eta nork daki, agian hemendik aurrera han-hemenka ibili beharko dute plazetan barrena eta agian 2012an olinpiadetan parte hartuko dute!!

Askok izan badira ere festara gerturatu direnak, nik auzotarrei egingo diet tarrea. Hasteko, debuta egin eta garaipena lortu duenetako bat Joseba Pellejero izan da; inork ez genuen ezagutzen bere alderdi hori baina begira, maonezko galtzak eta harrijasotzaile txalekua jantzi eta to, topatzen zituen harritzar guztiak



bizkarrera. Bejondeiola! Bestetik, herriko txikitxoenetakoak gizon proban alajaina!! Hori da hori tiratzea batere bizkarreko minik hartu gabe. Nork esango zuen Dema plazako harria mugitzeko

kapaz diren txikiak datozkigula atzetik! Azken batean, ondo pasatzeko ezer gutxi behar da; imajinazioa eta gogoia izanez gero, gainontzekoa bakarrik etortzen da. Ondo izan eta hurrengorarte.

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

## Berri txarrak auzoan



Duela hamabost egun auzoa zatitzen duen burdinbideak nahigabe berri bat eman zigun. Nork esango zion "Yiyiri", bertan bizia utziko zuela. "Ez zian han egon behar, trena bere bidetik zihoan" esan omen zuten norbaitek, baina egia zera da, lehen Portu baserriko traktorea, orain "Yiyi" eta bihar auzoko beste edozein izan litekeela. Trenbidea arrisku bizia da Txokoalden.

Beste alderditik ere berri txarrak. Auzoan jaiotako hainbeste lagun bertan lanean aritutako EVA lantegian trumoi hotsak dabilta. Hiru langile kaleratu dituzte, M<sup>a</sup>Dolores Aginaga auzotarra eta Txomin Arrillaga usurbildarra, biak ere lanean hogeitamar urte baino gehiago eginda eta Aitor Lekunberri donostiarra hamar urte lanean aritu ondoren. Bertan jarraitzen dugun gainerakoei ere, iraupena kinka larrian jarri digute, krisiaren aitzakia hartuta. Kontua da krisiak langileoi bakarrik eragiten digula, eta gerrikoa estutzea guri bakarrik inposatu nahi zaigula.

Egoera hau salatzeko, botatako langileak eta krisiaren aurrean denon artean eta denontzako neurriak exigitzeko, langileok legez, geure esku dagoen guztia egiteko prest gaude eta lantokiaren aldetik mugimendurik ez badago aste honetan bertan, otsailaren 25ean greba deitu dugu. Ea muturreko neurrietara iritsi aurretik taxuzko erabakiak hartzeko gai diren.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Berriak express

Lehenengo aldiz ari naiz kronika bat idazten Larrapataka, ahaztu egin zaidalako atzo eman behar nuela. Aukeratu ezazue, beraz, berri labur artean zuen gustukoa.

Zubietako txirrindulariak astebururo hor dabilta bueltara. Txororen bat edo beste izena eman nahian dabilela Quebrantahuesos proban. Ikusten badituzue, paretik alde egin: udaltzain kopuru handia da haien artean.

Pilotariak hasi dira udaberriko ligetan. Eta 7 urteko umeak entrenamendutan. Baina diruz juxtutxo dabiltzanez hasi dira bertso-afaria antolatzen maiatzerako. Ni ere pentsatzen hasi naiz hiru seme-alaba horretan izanda, izena eman beharko dudala pilotari elkartean eta hasi pagatzen, *en fin*, zer egingo diogu.

Konpostagailuz bete da Zubietako, eta iritsi zaigunez ondo ari dira. Bakarra da ondo ez dabilena. Osakidetza probetan horrela egingo lukete galdera:

- Zergatik ez dabil konpostagailuak etxe horretan:
- a) ikastaro gehiegi egin dituztelako bien artean (bizpahiru ikastaro).
- b) andreak gauza bat esan eta senarrak beste bat egiten duelako.
- c) gizonak gauza bat ez botatzeko esan eta andreak huraxe botatzen duelako.
- d) egoskorrak direlako.

Ikusten duzue erantzunak egokiak dira Zubietako etxe guztietarako, baina besteen kasuetan konpostagailuak funtzionatzen du.



# Inauteri Jaia, gero eta jendetsuagoa

## Udarregi ikastolako ikasleak bezperan ibili ziren kalejiran

**A**spaldiko partez kalean egoteko moduko giroa egin zuen pasa den asteburuan. Udarregi ikastolako ikasleak izan ziren goiztiarrenak, ostiralean ibili baitziren kalejiran. Larunbat goizean, aldiz, Txerririk egunez prestatu ziren ekitaldietan adin guztietako herritarrek parte hartzea lortu zuten. Piratak han ziren, San Ferminetako entzierroa ere ospatu zen. Arratsaldean olinpiar kirolariek hartu zuten lekukoa, edo hobeto esanda joko olinpiarretako tortxa. Harri jasotzaileak, igerilariak igerileku eta guzti, atletak, tenis jokalaria, txirrindulariak, gimnastak, arbitroak... Kirol erakustaldi bat baino gehiago egin zuten BTK-k girotutako kalejiran, goizaldeko ordu txikiak arte. Nor izan ote zen tortxa olinpiarra itzaltzen azkena?




IRUDIAN DIRENEK SAN FERMINETAKO ENTZIERROA ANTOLATU ZUTEN. HAUR, GAZTE ETA HELDU DANTZAN JARRI ZITUZTEN.



OLINPIAR JOKOEN PLANTEAMENDUAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN BAINA IZAN ZIREN BESTELAKO MOZORROAREKIN PLAZARATU ZIREN KOADRILAK ERE. ARGAZKI GEHIAGO, [WWW.NOAUA.COM](http://WWW.NOAUA.COM) WEBGUNEKO ARGAZKITEGIAN IKUSGAI.





**berriarekin**  
 Munduko  
**ZINEMA**  
 euskaraz

**BOST FILM:**  
 Brokeback Mountain  
 Etxaldeko promesak  
 Gizakien seme-alabak  
 Ezkutuko plana  
 Lorezain leiala

Otsailaren **28**tik aurrera,  
 larunbatero, zure kioskoan **BERRI**arekin



**+ 4,90€**

Harpidedunentzat, bilduma osoa 19,40€  
 Eskaria egiteko: 943-30 43 45

Maitasun istorioak,  
 zientzia fikzioa,  
 akzioa...  
 kalitateko zinema



Aukera ezazu, **BIZI euskaraz** **berria**

## Kanpaina eta gero, herritarren txanda

**A**raba, Bizkai eta Gipuzkoako biztanleak daude botoa ematera deituak. Datozen lau urteetan Ajuria Enean nork aginduko duen erabaki beharko dute igandean. Beste behin ere, Alderdien Legeak baldintzatutako hauteskundeak izango dira.

2.600dik gora hauteskontzi jarriko dira EAeko herrietan barrena. Usurbilen, bederatzi izango dira jarriko diren hautes-mahaiak. Goizeko 09:00etan irekiko dira bozkalekuetako ateak eta iluntzeko 20:00ak arte izango da bozka emateko aukera.

### Alderdien Legeari begira

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-kanpainako hizpide nagusietako bat izan da, beste behin ere,

Alderdien Legea. Duela lau urte, azken orduan baimendua izan zen EHAK. Oraingoan ordea, legez kanpo utzi dituzte Ezker Abertzalearen aukera denak. Hala ere, nahiz eta baliogabea izan, D3M papeletarekin bozkatzeko deia egin du Ezker Abertzaleak.

### Krisia, denon ahotan

Gainerako alderdiak ere, burubelari aritu dira kanpainan. Krisia nola gainditu eta bakearen beharren jarri dituzte indarrak, eta gehienen mezuak ildo horretan joan dira.

### Partehartzea

Igande honetako partehartzea nolakoa den ikusi behar. 2001ean, %80koa izan zen, sekula eman den kopuru altuena. Baina kontestua bestelakoa zen orduan.



GOIZEKO 9:00ETAN ZABALDUKO DIRA BOZKALEKUETAKO ATEAK.

WWW.NOAUA.COM



**MARTXOAK 1, IGANDEA**

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK**

**JARRAITU HAUTESKUNDE GAUA**

**WWW.NOAUA.COM webgunean**

Usurbildarron zerbitzura





bozkatu



ba  
urre  
txe

ORAIN INOIZ  
BAINO GEHIAGO



## Hauteskundeak, ordezkari politikoaren ahotan

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen bezperan gauden honetan, Usurbilgo udaletxean ordezkaturik dauden korrante politikoaren iritzia bildu nahi izan ditugu. Denei inkesta berbera igorri zaie.

Eta denei erantzunak emateko espazio berbera eman zaie, gehienez 2.200 karaktere.

**1** Nolako izan da Eusko Legebiltzarreko azken legegaldia?

**2** Zure alderdia bozkatzeko arrazoi nagusiak azalduko dizkiguzu?

**3** Alderdien Legeak hauteskunde prozesua baldintzatuko du, beste behin ere. Lege honek egoera politikoa normalizatzen laguntzen duela uste al duzu?



## Ezker Abertzalea: “Apartheid politikoa jasaten ari gara”



**1.** Galdeketa egin ez den legegintzaldia bezala gogoratuko dugu. Urriaren 25ean galdeketa egingo zela behin eta berriro aipatu ziguten. Eta debekuaren protesta gisa, sei elkarretaratze baino ez (ez kontsultarik, ez intsumisiorik, ez Estrasburgon salaketarik). EAJk ez du gaur egungo markoa gainditu nahi eta herri honentzako duen eskaintza: gutxi batzuentzat negoziarioa eta “Espainian eroso bizitzea” dira. Debekuari aurre egiteko gainerako alderdien (EA, EB eta Aralar) gaitasun eza ere agerian geratu da.

**2.** Euskal Herriak aldaketa politikoa eta soziala behar du. Horrek egungo esparru juridiko-politiko antidemokratikoa gainditu eta marko demokratiko bat eraikitzea eskatzen du, independentziari ateak zabalduko dizkiona eta neoliberalismoaren alternatiba izango den eredu sozial eta ekonomikoa eraikitzea ahalbideratuko duena.

Aitzitik, batzuk aldaketa galaraztearekin tematuta daude. PSOEek eta EAJk, euskal jendartearen gailenduriko aldaketa nahiaren aurrean, egungo esparruaren erreforma hutsa, gauzak bere horretan mantenduko dituen aldaketarik gabeko aldaketa egin nahi dute.

Hauteskunde hauetan jokoan dagoena ez da nork aginduko duen Ajuria Enean, baizik eta benetako aldaketa politikoa eta soziala aitzinatzen dugun.

D3M bokazio horrekin jaio da: demokraziarik gabeko egoera hau (erabakitze eskubidea ukatua eta salbuespen egoera gordina) atzean uzteko eta etorkizunari begiratzeko.

D3Mren aldeko botoa urrezko botoa da. Boto errebeldea, Estatu espainiarraren jarrera faxistaren aurrean milaka herritarrek amore emango ez dugula baieztatzea datorrelako; herri honen eskubideekin konprometitutako botoa delako; beste jendarte eredu baten aldeko botoa delako; indar erregionalisten

jarrera pasibo eta kolaboratzailea salatzeko botoa delako; Euskal Herriak behar duen sakoneko aldaketa politikoren aldeko botoa delako.

**3.** Euskal Herriari demokrazia eta euskal herritarroideiak defendatzea ukatzen zaigunean onartezina da ezer gertatuko ez balitz bezala aritzea, hainbat alderdi politikoa egiten ari diren bezala, eraso berri hau hauteskunde kanpainan bere onerako lotsagabe erabiliz.

Ez dute ezker abertzaleak hauteskunde hauetan parte hartzerik nahi, jakin badakitelako berau aldaketaren motorra dela. Munduan parekorik ez duen apartheid politikoa jasaten ari gara. Egoera zail hauetan agertu dugun aurrera jarraitzeko grina, iniziatiba eta tinkotasuna bidelagun, martxoaren 1ean hautes ontziak independentisten bozkez beteko dira, bozka hoiak guztiak banan bana zenbatu beharko dituzte. Zure esku dago.

## EA: “Gizarteko kohesioa dugu ardatz”



**1.** Arlo sektorialari dagokionean hainbat lege eta plangintza onartu izan dira, erkidegoaren ongizate mailan onerako bidea markatu izan dutenak.

Baina herri ikuspegi batetik, zintzilik geratu den ikasgaia dugu eta guretzat aipatu beharrekoa da. Kontsulta Legearena, alegia. Izan ere, ibilbide luzea zekarren gure gizarteak erabakitzeke duen eskubidearen aldarrikapena. Aurreko legealdian saiakera bat izan zen eta bertan behera geratu zen. Oraingoan, 2008ko udazkenerako zegoen aurreikusita kontsulta bat, legea onartua zegoelako baina azkenean ezin gauzatu izan da.

Hau honela izanik, Eusko Alkartasunatik argi dugu, datorren legealdiak izan beharko duela aurrerapauso hori emateko unea. Gure asmoa horretan saiatzea da, eskubide bati bide ematea baita.

**2.** Eusko Alkartasuna bozkatzeko lehen arrazoia herri honetako eskubideekin dugun konpromezua da. Zalantzarik gabeko abertzale eta burujabetzaren aldeko apustu garbia suposatzen du Eusko Alkartasunari bozka emateak.

Bada beste arrazoi garrantzitsua eta gizarte ikuspegi batekin du zerikusia. Sozialdemokratik gara eta gizarteko kohesioa dugu ardatz. Hau da, gizarte honetako gizon eta emakume guztiak aintzakotzat hartzen dituen neurriak defendatu behar ditugu.

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaz gain, bada jendea beti krisi egoeran bizitzen dena eta pertsona hoiek guztiak ingurugiroarekin errespetuzkoa den gizarte batean, osasun, hezkuntza, gizarte eta orokorrean bizi kalitate duin bat izateko eskubidea dute.

**3.** Eusko Alkartasunaren jarrera oso argia da Alderdien Legearen aurka. Gure premisa “giza eskubide guztiak guztiontzat” da eta horrek oinarrizko eskubideak jasotzen ditu. Bizitzatik hasi eta baita aniztasuna errespetatzeraino. Hau da, demokrazi ikuspegi baten erabat aurka dago aniztasun politikoa mugatzea. Gure ustez, aukera politikoa muga ditzakeen bakarra, demokratikoki adieraziko den gizartearen borondatea da.

## Aralar: “Ezkerretik eta abertzaletasunetik eragin nahi dugu”



**1.** Aralarren lehen legeintzaldia izan da. Ordezkarri bakarra lortu genuen 2005ean, eta erabakiorra izan zen plenoetako eztabaida guztietan parte hartzeko erabakia hartu izanak. Izan ere, hirukoak 32 ordezkarri izan ditu eta PSE-PPk, berriz, 33. Gauzak horrela, eta EHAK-k eztabaidetan ez duenez parte hartu izan, kasu askotan, gure botoa erabakigarria izan da eragiteko. Horixe izan da hasiera-hasieratik Aralarren asmoa, eragitea. Bide horretan, lan egin dugu eta ordezkarri bakarrarekin lortu dugu, esaterako, euskalgintzarako diru partidak gehitzea aurrekontuetan lehenengo bi urteetan; 2008an, berriz, EHAK abstenitu egin zen eta euskalgintzako hainbat diru partida ez ziren aurrera atera, tartean UEMArena. Biktimen inguruan ere sufrimendu guztien errekonozimenduan lan egin dugu eta lortu dugula uste dugu, ohartzea eta aintzat hartzea biktimen panorama askoz ere irekiagoa dela. Torturaren inguruan ere Aralarrek eginda-

ko barne ministroaren jarrera salatzeke ekimena atera zuen, alderdi abertzale guztien aldeko bozkarekin.

Bestalde, gobernuaren proiektu garrantzitsu batzuk bidean geratu dira: etxebizitzaren legea, hizkuntza ereduaren legea, Aralarrek proposatutako motibazio politikoko beste biktimen legea, 2008an onartu zen terrorismoaren legeak aintzat hartzen ez dituen motibazio politikoko indarkeriak eragindako beste biktimak. Positiboki baloratzen dugu ere Legebiltzarreko arautegian onartu den aldaketa: amatasunagatik botoa delegatzeko aukera izatea.

**2.** EAJ bera bakarrik ez da nahikoa legebiltzarrean abertzaleok gehiengoari eusteko, horri gehitu behar diogu azken hauteskundeetan nabari dela EAren gainbehera eta gu goraka goazela, abertzaleok gehiengoari eusteko giltza da Aralar. Herri moduan ditugun eskubideak onartuak izan daitezela lan egiteaz gain, ezkerretik eragin nahi duen alternatiba da gurea.

Batzuk krisia langileen bizkar utzi nahi duten bitartean, langileen ahotsa legebiltzarrean eraman nahi dugu. Emaitzak parekatuak izango direla kontuan hartuta, hirukoak eta bloke estatalak ez dute gehiengorik izango, inoiz baino aukera gehiago izango dugu eragiteko. Ezkerretik eta abertzaletasunetik eragin nahi duenaren aukera da Aralar.

**3.** PSE-EEri bakarrik laguntzen dio alderdien legeak eta sozialisten hauteskunde interesen arabera aplikatzen da. Lehen moduan orain, argi eta garbi esaten dugu ez gaudela ados legearekin. Proiektu politikoa guztiak askatasunez eta aukera berdinekin aurkezteko eskubidea izan behar genuke, zoritxarrez hori ez da horrela. Alderdiaren legearen kontra egon ginen, gaude eta egongo gara. Kontra egoteaz gain gureak ez diren karguak ez ditugu hartu. Bakoitzak bere eskuetan dagoena egin behar du egoera gaitzitzeko, gu ari gara gurea egiten.

## EAJ-PNV: “Gestore eraginkorra da Ibarretxe”



**1.** Iragan legealdiaren gaineko balorazio baikorra egiten dugu. Lege ekoizpenari dagokionez, legealdi emankorra izan da, Eusko Legebiltzarrak Gobernuak aurkeztu izan dituen Lege Proiektu gehienak berretsi baititu. Aipamen berezia merezi dute gizarte arloko zenbait legeek; Pentsioen Legea, Gizarte Zerbitzuen Legea eta Gizarteratzeko eta Diru-sarreak Bermatzeko Legea. Asistentzia eredu honi Gobernuak garatu duen hazkunde ekonomikoaren eredu orekatua gehitu behar zaio. Horregatik, azken urteotako politika eta kudeaketari esker, krisi ekonomikoari aurre egiteko baldintza egokiak ditugula uste dugu. Are gehiago, horretatik indartsu irteteko baldintzak eduki ere.

Normalizazio politikoaren esparruan, bestalde, Kontsulta Legearen onarpena azpimarratu behar dugu. Zentzu honetan, ezin ahaztu Estatu espainolak erakutsi duen demokrazia gabezia iazko urriaren 25erako iragarrita zegoen kontsulta debekatzera.

**2.** Ibarretxe Lehendakariaren 10 urteko ibilbideak erakusten du hitzeko gizona dela; emandako hitza bete duela, bai arlo politiko hutsari dagokionez eta baita kudeaketari dagokionez ere. Juan Jose Ibarretxek gestore eraginkorra dela erakutsi du. Estatuko indizeekin alderatuta, askozaz gaineratik kokatu du Euskadi, eta, nazioarte mailan, Giza Garapen Indizeetan, lehendabiziko postuetan jarri du.

Normalizazio politikoari dagokionez, gure Herria orain hamarkada bat pentsaezina genuen lekuan kokatu du. Urrats kualitatiboa eman dugu; ziurrenik, gure Historiako garrantzitsuenak. Estatutu Politiko Berriak eta Kontsulta Legeek ahalbidetu dute, Euskal hiritarrek errealitate bezala ikustea, Euskal Herriaren eta bere erabakitze eskubidearen aitortza gauza daitekeela. Eta, Estatu espainolak etengabe oztopatu arren, ikuspuntu demokratiko batetik, hasitako ibilbideak ez du atzera bueltarik.

Ibarretxe Lehendakaria, Herri honek behar eta eskatzen duen aurrerapen,

berrikuntza, elkartasuna eta konpromisoa ondoen islatzen duen pertsona eta politikoa da. Hautagairik sendoena eta fidagarriena da; krisi ekonomiko honetatik irten arazteko gai den bakarra, eta, aldi berean, bakegintza eta normalizazio politikoari heltzeko gai den bakarra, oraindik orain, konpondu gabe dauden egiturazko gaiak azken hauek.

**3.** Noski hauteskunde prozesua baldintzatuko duela. Horregatik eta horretarako onartu zuten PSOEek eta PPK. Alderdien Legeak eta bere aplikazio interesatuak, normalizazio politikora gerturatu ordez, urrundu egiten gaitu. Hitz egin ahal izateko, ez normalizazio politikoak baizik eta politikaren normaltasunaz, herriaren bozka duten adierazpen politiko guztiek, bakoitzak duen indarraren arabera, Legebiltzarrean egon behar dute. Honegatik, Alderdien Legea indargabetu egin behar da, -gutxienez aplikazioari dagokionez- adierazpen politiko guztiak hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko.

## PSE-EE: “Euskadik aurrera egiteko beharra du”



**1.** Amaitu berri den legealdia aurreko legealdien antzekoa izan da, zerbaitean egin bada aurrera, eta legealdia desastre hutsa izan ez bada, sozialistok herritarrekiko dugun ardura behin eta berriz erakutsi dugulako izan da; aurrekontuak onartzea baliatuz, gobernatzen izan den hirukoak bideratu ezin izan dituen legeak eta akordioak bideratuz.

Batetik, EAJ-PNV hor egon da, lehendakaria buru, goreneko gizakiek argitua edo, ideia batekin esnatu eta jakinik ez zuela idei hori aurrera ateratzeko gehiengo nahikoa, gizarte osoari inposatu nahi izan dio (Ibarretxe plana, kontsulta...).

Bestetik, EA. Karramarroen antzera, atzera ibili da, inoizko maila baxuenean dagoen eskola publikoa dugu, hezkuntzako profesional denak, oinarritzotik unibertsitate mailaraino, guztiz desmotibaturik daude, ahaztuak eta babes gabe senti-

tzen dira, eta horrek ikasleei ematen zaien hezkuntza mailan eragiten du, hezkuntza arloko gaitan ez dira gobernuko kideekin ezer adosteko gai izan.

EB alderdiaz esan Madrazo fantasiako munduan bizi dela, ez duela inolako legerik aurrera atera, maila sozialeko hobekuntza denak Estatuak emandako lege aginduetatik etorri dira, “SOVI” delakoaren berreskuratzea, dependentsia legea, pentsio baxuen osatzea...

**2.** Hitz gutxitan argudiatu daitezke Euskadiko sozialisten aldeko bozka. Higiene politikoarengatik bakarrik, Lehendakaritzan eta Eusko Jaurlaritzako bulego denetan premiazkoa da leihoak zabaltzea; politika berriekin aireztatzeko beharra dute. Gainera, Euskadik aurrera egiteko beharra du eta denok dakigu Euskadik soilik egin duela aurrera sozialistak gobernuan izan ziren garaian, eskola publikoa, Osakidetza, babes ofi-

zialeko etxebizitzak... Gure mugetatik at kontseilari sozialistek martxan jarri zituzten erreferentziak. Erkidego guztietan buru izan diren erreferentziak ilararen azken tokira eraman dituzte EAJ-PNV, EA eta EB alderdietako kideek.

**3.** Alderdien Legea hor dago eta betetzeko dago, gustatu ala ez gustatu, egin behar dena da legea bete, ahalik eta ordezkarik gehien lortu eta politikatik arrazonatu, argudioak eman eta konbentzitu; eta gustukoa ez den legearen ordez lege proiektu berri bat aurkeztu, gehien-go batek babestua izateko modukoa.

Alderdien Legea betearazi duten tribunal hauek dira akats batengatik edo funtzionario baten akatsarengatik, talde terrorista bateko kide izandako atxilotu bat kalean utzi dutenak, erabaki batzuk gustuko baditugu eta txalotzen baditugu, ez ditugu besteak deskalifikatu behar.



## Bederatzi hautes-mahai jarriko dira igandean

**A**zkenetan da hauteskunde kanpaina. Gorabeherak gorabehera, bozka emateko garaia iritsi da. Usurbilen, bederatzi izango dira jarriko diren hautes-mahaiak, aldameneko taulan dituzue xehetasun gehiago. Igande iluntzetik aurrera, hauteskunde gauaren jarraipena egingo dugu [www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean.

Igandean bozka ematera hurbiltzen denak, mahaiburuan denari izena eta abizena esan beharko dizkio eta titularren argazkia duen agiria erakutsi (NANa, pasaporte edo gidabaimena) eta bozketa kartazala eman.

Azken hauteskundeetan bezala, bederatzi hautes-mahai jarriko dira: Udarregi ikastolan 3, Santuenean 2, Kalezarren 2, Aginagan 1 eta Zubietan 1.

### Martxoak 1 igandea, hautes-mahaiak

Lekua - Helbidea	Barrutia	Atala	Mahaia	Letrak
Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea 11	1	1	A	A-I
Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea 11	1	1	B	J-Z
Kultur Elkartea. Santuenea auzoa 12	1	2	A	A-K
Kultur Elkartea. Santuenea auzoa 12	1	2	B	L-Z
Aginaga Herri Ikastetxea. Erriberako kalea 7	1	2	C	A-Z
Haur Eskola. Kalezar	1	3	A	A-K
Haur Eskola. Kalezar	1	3	B	L-Z
Lanbide Eskola. Zubieta auzoa, 9	1	3	C	A-Z
Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea, 11	1	4	U	A-Z

eragin eta aldatu


Dani Maestu Aintzane Ezenarro Mikel Basabe

[www.aratzar.net](http://www.aratzar.net)

ezkerreko altematiba abertzalea

aralar





**BOZKATU**  
**URREZKO BOTOA**

**EUSKAL HERRIAK BEHAR DUEN ALDAKETA**



## Berria Txapelketan, Hernaniren aurka Hernanin bertan

**B**erria Txapelketaren kanporaketa jokatu da asteburu honetan. Usurbildarrek, lehen urratsa behintzat, sendoa eman zuten urtarilaren bukaeran, Igorre kanpoan utziz. Asteburu honetan, beste arerio gogor bat gainditu behar dute; Hernani. Igande goizean jokatu da Usurbil eta Hernaniren arteko norgehiagoka, 10:30ean Hernanin bertan.

Kadete mailan, Barandiaran eta Santxez bikotea arituko da. Lujanbio-Elorza bikote hernaniarra izango dute aurrez aurre.

Jubeniletan, Santxo-Ostolaza bikoteak Arrieta-Aizpitarteren aurka neurtu behar dute indarrak.

Nagusietan, azkenik, Huizi-Txapartegi izango dira usurbildarren ordezkariak. Esnal-Gorrotzategiren aurka jokatu dute.

Berria Txapelketan tanto denak hartzen dira kontuan. Beraz, tanto gehien biltzen dituen herria pasako da hurrengo kanporaketara.

### UDABERRI TXAPELKETA USURBIGO FRONTOIAN

Otsailak 28 larunbata, 11:00

Kadete 3.maila

USURBIL- ZARAUTZ 3

(Egoitz Torregerai - Imanol Rebollo).

Nagusiak 2.maila

USURBIL - INTZA

(Imanol Esnaola - Iker Zinkunegi).

Nagusiak 1.maila

USURBIL 1-MURUMENDI

(Xabier Errasti - Mikel Elola).



BERRIA TXAPELKETA PARTE  
HARTZEN ARI DIREN PILOTARIAK.

### Emakumeak, Aginagan

Ezker hormako "II. Emakumea Pilotari" ligaxkako azken jardunaldia jokatu da larunbat honetan, 16:00etatik aurrera Aginagan. Redondo-Errasti bikotea Etxarri-Urtasunen aurka arituko da.

### Judo Taldea, Ligako onenen artean

Judoko Liga Nagusiaren bigarren jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan. Mutil zein nesken mailan, usurbildarrak bigarren sailkatu ziren. Argazkian, Usurbilgo taldeko hainbat kide, lehiaketa bukatu berritan.



### Larunbat honetan, Oriako traineru jaitsiera

**D**atorren larunbatean ospatuko da Oriako Traineru Jaitsieraren XV. edizioa. 1995ean egin zen lehen jaitsiera eta geroztik, partehartzea gero eta handiagoa izan da. Aurten, Kataluniako arraunlariak ere animatuko dira.

Azken bi urteotan, 2007 eta 2008an, 42na ontzi aritu dira Oriako jaitsieran. Aurten marka guztiak apurtuko dira, Llagut Catalá eta Llaüt Mediterraneo taldeak ere hurbilduko baitira. Hauek 4.000 metroko ibilbidea osatuko dute, Saikolatik aterata.

Lasterketa honetan, maila guztietako arraunlariak hartzen dute parte. Emakumeen arteko lehia ere egingo da. Arratsaldeko 17:00ak aldera hasiko dira ontziak erriean barrena.

Aipatu behar da marka onena Oriok egin zuela 2006an, 19:37'93'' denbora. Orio da gainera garaipen gehien eskuratu dituen, 10. Astillerok 3 eta Hondarribiak 1.




ARRATSALDEKO 17:00AK  
ALDERA HASIKO DIRA ARRAUNEAN.

**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
Obaba kalea 29 · ASTEASU  
943 69 68 52 · 620 800 186



## Hitz gezidunak !!

	Inprimatua	▼	Arrotzak (irain hitz)	▼	Samoako hiriburua	▼	Altxarazi	▼	Itsas hegazti
	Munduko 12.gailur		Doi		Pl., diru mota		Oheratua		
	▶		▼		▼	—	▼		▼
	* Irudiko herria	▶							
	Arteria bat								
Portaera	▼	Kortxo	▶	▼					
Emakume izena		Bretainiako hiria							
▶		▼					Diosal hitza	▶	
							Igarobideak		
Ald., Asia-ko estatua	▶				Orezta	▶	▼		Erandioko auzoa
Hernaniko auzoa					Nafarroako herria				
▶				▼					▼
				—					
Junta-gailua	▶			Gauza, gai	▶			Artsenikoa	▶
Areago				Bizkaieraz, bike				Kasik	
▶						Soinaren neurri	▶	▼	
			H2O	▶	▼	Potasioa			
			Tona						
Pluralean, denbora librea	▶		▼				Nasa, moila	▶	

Irudian, Urola Kostako herria.

Soluzioa: 19. orrialdean.

## Martxoaren 10etik aurrera, Soinurbil zikloa

Zumarte Musika Eskolak eta Udalak prest dute jada bosgarren ediziora ailegatu den Soinurbil ekimenaren egitaraua. Etxeko zein beste herrietatik datozen ikasleen ahotsak eta musika tartekatuko dira beste behin, martxoaren 10ean hasi eta hilaren 26ra arte antolatu duten ekitaldi sortan. Haur opera ikuskizun batekin estreinatuko da bosgarren edizioa. Amaitu berriz, Zumarte musika eskolakoek urtero egin ohi duten trukaketa saio batekin. Ekimenak iraungo duen hiru asteko tartean, kontzertu pedagogiko edota kalejirez gozatu ahal izango da.

Ekitaldi gehienak Sutegin izango dira.

### Trukaketa oriotarrekin

Gipuzkoako eskualde desberdinetako musikariak gonbidatu gisa parte hartuko dute Soinurbilen: Tolosako Musika Bandak, Oñatiko abesbatza gaztetxoak edota Hernaniko saxofoi taldeak. Emanaldi gehienetan Zumarteko ikasleekin batera parte hartuko dute antolatu diren ekitaldietan.

Orioko Danbolin musika eskolakoak Sutegira etorriko dira emanaldia eskaintzera egun batean. Trukean, usurbildarrak haien kostaldeko herri horretako



ORIOKOAK IZANGO DIRA GONBIDATU BEREZIAK AURTENGO EDIZIOAN.

kultur etxean izango dira beste egun batean.

## Agenda !

Otsailak 28 larunbata  
 - TELP ikastaroa. 10:00-13:00, Artzabalen.  
 - Kantu-jira, 19:00etan frontoitik.  
 - 1956 kinto afaria. Izena emateko: 695 780 696 / 639 510 749.

Martxoak 3 asteartea  
 - Hitzaldia: gizartean parte hartzearen onurak. Esperientzia Eskola. 16:00etan Sutegin.  
 - Euskal kantu ikastaroa, 19:30etik 20:30era, Udarregiko musika gelan.

Martxoak 4 asteazkena  
 - Kultura Aholku Batzordea. 19:00etan udaletxean.


Martxoak 6 ostirala  
 - Euskarazko film laburren emanaldia. 22:00etan Sutegin.

## KzGunea, arratsalde

Martxoak 2/13  
 "Internet ikastaroa, KzGunea + e-administrazioa". 16:00-18:00

Martxoan KzGunea arratsalde  
 16:00-20:00. 943 36 14 12.

## Soluzioak !

	⊕	I	⊕	M	⊕	A	⊕	J	⊕
	B	R	O	A	D	P	E	A	K
	⊕	A	Z	K	O	I	T	I	A
⊕	J	⊕	A	R	T	E	L	A	Z
H	O	N	O	R	A	T	A	⊕	A
⊕	K	A	R	I	⊕	O	R	I	N
S	A	N	T	A	B	A	R	B	A
⊕	E	T	A	⊕	E	K	A	I	⊕
A	R	E	⊕	U	R	⊕	K	A	I
⊕	A	S	T	I	A	K	⊕	K	A

Azkoitia

# Larunbat honetan, kantu-jira

## 19:00etan frontoian eta edonork har dezake parte

U surbilgo Euskal Kantu Taldea duela hilabete hasi zen elkartzen. Lehen entseguak egin dituzte eta larunbat honetan, kalejiran ibiliko dira herrian. Nahiz eta entseguetan ez azaldu, larunbat honetan edonork har dezake parte kantu-jiran, pilotalekutik abiatuko den kantu kalejira.

Hitzordua iluntzeko 19:00etan finkatu dute, pilotalekuan. Bertatik abiatuta, kalez kale arituko dira kantuan ordubetez.

Antolatzaileek egin duten deialdia irekia da. Beraz, euskal kantuek abes-teko gogoz dagoen edonork parte har dezake hileko azken larunbateko ekitaldian.



EUSKAL ABESTIAK KANTATZEKO GOGOZ DAGOENA, BERAZ, AGER DADILA LARUNBAT HONETAN PILOTALEKUAN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN.

## Lanbide Eskolakoak

### Dax-en (Frantzia) bisitan

U surbilgo Lanbide Eskolako Administrarritza alorreko ikasleak Dax-eko Lycee de Bordan izan ziren lehengo ostegunean, bere espezialitate berdineko ikasleekin informazioa eta esperientziak elkar trukatzeko. Martxoaren erdialdean, Borda Institutuko ikasleek Usurbilgo Lanbide Eskola bisitatuko dute.

## 1956ko

### kinto afaria

Larunbat honetan bilduko dira 1956 urtean jaiotakoak, Saizar sagardotegian egingo duten afarian. Gaueko 21:00etan Saizarren bertan.

Izena, aldeztu aurretik eman behar da. Otsailaren 26an ostegunarekin amaituko da izena emateko epea, honako telefono zenbakietara dietuz: 695 780 696 / 639 510 749.

**txirriStra**  
 KONTSEJUZARRA 13  
 943 360 466  
 pintxoak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak  
**TABERNA**

**LATAILLADE**  
**ITURGINTZA**  
 GASA  
 BEROKUNTZA  
 MANTENIMENDUA ETA  
 KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK  
 Ariztitxo 8, behea : 943 363 348 - 609 888 021



# Martxoan, txapelketa ugari Artzabalen

Gure Pakeako bazkideen arteko jokoak datorren astean hasiko dira

**A**zer nolako martxa hartu duen Artzabalek. Baserria berritua izan denetik hona, mugimendu handia da bertan. Gure Pakea zahar egoitzakoak izan dira ekipamendu honi bizitza gehien eman diotenak. Datorren astean hasiko dira bazkideen arteko jokoak.

Martxoaren 4an asteazkena, Gure Pakea zaharren egoitzako bazkide arteko txapelketa hasiko da. 16:30etatik aurrera, puntto jokoan arituko dira. Eta datozen asteetan, tutean, musean, igel jokoan...

Hori bai, alde zuzenetik izena eman behar da eta horretarako azken eguna, otsailak 27. Sari-banaketa, aldiz, martxoaren 27an izango da.



MARTXOAREN 4AN ABIATUKO DA GURE PAKEA ZAHAR EGOITZAKO BAZKIDE ARTEKO TXAPELKETA. PUNTTO JOKOAREKIN HASIKO DIRA.

## Aukera berdintasunari buruzko diagnostikoa, prest

**M**artxoaren 5ean ostegunarekin, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko diagnostikoaren aurkezpena egingo da Artzabalgo Areto Nagusian. Aizpea Otaegi Elhuyarreko teknikariak egingo du aurkezpena, 18:00etan hasita.

## “Putzuak lehortzen”, martxoaren 7ko antzerkia

**A**modioz mintzo den ikuskizun ahonetako protagonistarentzat, Ramonarentzat alegia, amodioa eta bizitza gauza bera dira. 20:00etan Sutegin. Sarrera aurretik: 4 euro, kiroldegian. Egunean bertan, 6.



## Hizkuntza eskubideei buruzko tailerra Artzabalen

**U**dalak Euskararen Erabilera Plana onartu zuen abenduan. Otsailaren 12an udal langileei planaren berri emateko bilera bat antolatu zen udalean. Hain zuzen, hizkuntza eskubideei buruzko tailerra egin berri dute udaleko 20 langilek. Era honetan, udalak euskarekiko eta hizkuntza eskubideen urraketekin bukatzeko duen konpromisoari sendoa heldu nahi dio.

Bestetik, TELP ikastaroan 10 lagunek eman dute izena eta hiru saio jasoko dituzte Artzabalen.



IKASTAROA AURREKO ASTEAN EGIN ZUTEN ARTZABALEN.

## Eguneko goardiako farmaziak

**Otsailak 26, osteguna**  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Otsailak 27, ostirala**  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Otsailak 28, larunbata**  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

**Martxoak 1, igandea**  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Martxoak 2, astelehena**  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Martxoak 3, asteartea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Martxoak 4, asteazkena**  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Martxoak 5, osteguna**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Martxoak 6, ostirala**  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Martxoak 7, larunbata**  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte  
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

**Martxoak 8, igandea**  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Castilla Farmazia (22:00-09:00),  
Urbietza kalea, 7 Hernani 943 552 941  
\*Usurbilen, soilik eguerdina arte

ETXEBIZITZA

- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 676910638 telefonora.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00etatik 21:00etara, 656 75 70 73.
- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisia salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Xsara Picasso salgai. 2000 urtekoa eta egoera oso onean. 4500 euro, negoziagarriak. 610975757 (Paulo).
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

- Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m<sup>2</sup>. Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da (Truke denda zena). 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaragainan (Dia supermerkatuaren ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astelehenetik ostiralera eta 13:30tatik 16:30 etxeko lanak eta umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 615 756 893.

Lan-eskaintzak

- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska eskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeak ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko...

- Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko dispoñibiltatea. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Inauterietako igande goizean Nokia telefono bat ahaztu genuen zesto baten barruan. Aurkitu duenak Txirristan edo Udaltxean bueltatu dezala. Egun batzuren bueltan telefona blokeatuko da eta ez du balioko inorentzat.
- AC/DC taldeak, martxoak 31 asteartea Bartzelonan eskeiniko duen kontzertura Donostiatik joateko autobusa antolatu da. Joan-etorria 50 euro. Eserleku kopurua mugatua dago. Berri gehiagorako eta izen ematerako: bus\_acdc@hotmail.com
- Duela aste batzuk Agerialdeko frontoi inguruan patinete bat topatu genuen eta udaltzaingoaren galdutakoan sailean utzi genuen. Galdu duena joan dadila bertara.
- Pasa den urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruetan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

Zuen  
publizitatea  
hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725





# Ba al zenekien itzulpenak eskatu ditzakezula Internetez? Eta euskaraz ikasteko dirulaguntzak dituzula? Eta... [www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org) herritarrentzako webgunea da. Buruntzaldeko Udaletako Euskara Zerbitzuek lehendik zeukatena berritu dute eta informazio ugari jarri dute sarean. Helburu nagusia da, herritarrek euskararekin zer ikusia duten gaien inguruko gune bat izatea beren zalantzak eta beharrak asetzeko. Webgunean informazio praktikoa dago, besteak beste, eskualdean abian jarri diren egitasmoei buruzkoa, euskararen inguruko albisteak, dirulaguntzak, itzulpen zerbitzua, merkatarientzako materialak, ikastetxe, euskara elkarte eta komunikabideen datuak eta baita bitxikeriren batzuk ere, denak euskararen inguruan eta eskualdeko herritarren eskura.

**A**skotan tokatzen da testuren bat itzuli nahi eta ez jakitea nora jo; edo abizenak euskaratu nahi eta ez jakitea zer egin; edo herrian dauden euskaltegiak informazioa behar izatea eta ez jakitea non begiratu. Hain zuzen, horrelako zalantza asko eta asko erantzuteko zerbitzu berria dago eskualdean: [buruntzaldea.org](http://buruntzaldea.org) webgunea, Buruntzaldeko Udaletako Euskara Zerbitzuek sustatua.

Webgunean honako informazioa azaltzen da, etengabe berritzen ari dena: eskualdean martxan jarri diren euskararen inguruko egitasmo asko eta askoren berri, jaso daitezkeen diru laguntza ugariren berri, itzulpenak eta hizkuntz zalantzak argitzeko zerbitzua, eta abar luzea.

## Euskara indartzeko egitasmoak

Webgunean sartuz gero, lehenengo pantailan, Euskara eta Kirola azaltzen diren horretan, Euskara atalean klikatuz gero, Buruntzaldea euskaraz orrian sartuko zara. Lehendabiziko kolpean pantaila bete aukera topatuko duzu, hiru atal nagusitan banatua.

Pantailaren atal nagusia "Euskaraz bizi" atalak hartzen du; hor azaltzen dira euskara sustatzeko eskualdean martxan jarri diren egitasmo asko eta asko. Egitasmoen gainean, "Albisteak" atala dago, eskualdean euskararen inguruan izan diren azkene-ko berriak ikusteko aukera ematen duena. Eskubiko zutabearen, goitik behera, hainbat eta hainbat sail azaltzen dira, esate baterako: "Diru laguntzak", "Bestelako laguntzak" eta "Ikasi eta erabili" atalak.

## Albisteak laburrean

Goiko aldean, "Albisteak" atalean, eskualdeko euskararen inguruko azkene-ko albisteak azaltzen dira, esate baterako,

duela gutxi Usurbilen hizkuntz kexak eta zoriontzeak jasotzeko kutxak jarri dituztela esaten duena.

## Laguntzak eskubian

Eskubiko zutabearen, besteen artean, euskararen inguruko diru laguntzen zerrenda dago: euskara ikasteko, udako ikastaroak egiteko, errotulu komertzialak jartzeko eta euskara planak martxan jartzeko. Jakina, eskualdeko udalek beren irizpide propioak izaten dituzte diru laguntzak emateko garaian, beraz, diru laguntza bakoitza udalerrri bakoitzaren arabera begiratu behar da.

## Itzulpen zerbitzua

Itzulpen bat behar izanez gero, "Itzulpenak" atalean klikatu eta itzuli nahi den testua sartzeko aukera dago; itzuli ondoren, bueltan etorriko zaio herritarri.

## 'Aholkularitza'

Aholkularitza zerbitzuan, edozein delarik gure eskaera, adierazi eta berehala erantzungo dute zer egin, nora jo...

## 'Ikasi eta erabili'

"Ikasi eta erabili" atalean eskualdeko euskaltegien zerrenda, bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak, euskara ikasteko eta hobetzeko dauden egitasmoak eta eskualdean euskaraz egin daitezkeen aisialdirako ekintzen zerrenda azaltzen da.

## Euskararen inguruko datuak eta euskara erabiltzaileak

Datuak eta eragileak atalean, eskualdeko datu soziolinguistikoak azaltzen dira batetik; bestetik, hizkuntzaren erabileran eragile edo bultzatzaile aktiboak diren zerrenda eta datuak daude, hain zuzen, eskualdeko ikastetxe, euskara elkarte eta herri komunikabideena.



[WWW.BURUNTZALDEA.ORG](http://WWW.BURUNTZALDEA.ORG)  
WEBGUNEAK PRAKTIKOA ETA ERRAZA DA.

## Bitxikeriak

"Ba al zenekien?" atalean euskara sustatzeko egitasmo interesgarriez hitz egiten du, ez dutenak zertan eskualdekoak izan; hain zuzen ere, orain "Sakeleko telefono-entzako erremintak" atalean, besteak beste, melodiak, mezuak bidaltzeko hiztegia, edo euskara-gaztelera/gaztelera-euskara hiztegia mugikorrean jartzeko aukera ematen du.

## Informazio osagarria

Eskubiko zutabearen goi-goian Buruntzaldeari eta bere egitasmoei buruzko informazio orokorra azaltzen da. Baita ere, bertan egiten diren planei buruzko informazioa; euskararen normalizazioan gehiago sakondu nahi duen teknikari eta herritarrentzako.

## 'Euskaraz bizi'

**E**uskaraz bizi atalean, izenak dioen bezala, propio euskararen erabilerara sustatzeko martxan jarritako 12 kanpaina azaltzen dira. Egin diren guztiak ez dira hor azaltzen, baina bai nagusiak edo oraintxe martxan daudenak.

Honelakoak dira, *Eska ezazu haragia euskaraz!*, *Lan munduko euskara planak*, *Apelliduetan abizendu*, edo *Eskatu ogia euskaraz...* atalak.

buruntzaldea euskaraz

Andoain | **Baratzak** | Hemeri | Lasarte-Oria | Urdiain | Usurbil

Informazioa Euskaraz bizi Laguntzak Datuak albisteak euskaraz zerbitzuak horrematenariko...

### albisteak



**BURUNTZALDEAN HIRUINTZ KOPURU JASOTZERA BUDORAK JARMI PIRIA USURBILKIN**  
**Baratzak**, **Urdiain**, **Lasarte-Oria**, **Hemeri**, **Lasarte-Oria** eta **Urdiain** udalen udako ekitaldien hiruzetako batak jarraituko dituzte, jarmenaren bostetik hiru eman dute Urdiain Mekanizazio Zentroan egindako prentsaurrekoa.



**BARATZAK ETI**  
 Oso onak! 70 elk. maitatzen fete bitartean SMSak bidaltzeko. Egitze da [www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org) webgunean. Alfoi Tranterriaren zaren jarraitu izan arren, baratzak gaita hiru ahal izango du. Lau kategoriatan irabazteko iPad, iPhone eta beste gailuak.

**pi-pilean**



**SMSak euskaraz**

### euskaraz bizi

**Buruntzaldea**

- Adibideak
- Komunikazio-planak
- Egitzeak, ikasgaiak eta garatzeko plana

**dirulaguntzak**

- Euskaraz ikasteko
- Udako ikastaroak egiteko
- Errotulu komertzialak jarzteko
- Web orriak eta programa informatikoak
- Euskaraz planak marbutu jarzteko

**bestelako laguntzak**

- itzulpenak eta zuzenketak
- aholkularitza
- mekanizazioak
- materialak


**datuak eta eragileak**

- datu soziolinguistikoak
- ikastetxeak
- euskaraz elkardeak
- hiri komunikabideak

**ikasitza eta erabil**

- euskaltegiak
- mintzalaguna, gure artean euskaraz...
- hau dena egin dezakezu euskaraz buruntzaldean

**Ba al zenezkien?**



**Lurategia**  
 Sakelako telefonoentzako erremintak

Udako ikastaroren bat egin nahi baduzu, euskaraz ikasi nahi baduzu, edo errotulu bat euskaratu nahi baduzu adibidez, begiratu zein diru laguntza dituzun.

**ETSOKA BASTARRO**

**Euskaraz bizi laguntzak**

**HIRU BASTARROK EGITEKO**

**ERROTULU KOMERTZIALAK JARTZETZKO**


**WEB ORRIAK ETA PROGRAMA INFORMATIKOAK**

**EUSKARAZ PLANAK BAREXAN JARTZETZKO**

Buruntzaldeako Euskaraz Zerbitzuak | [www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org) | 947 000 720

## Apellidua euskaratu nahi dituzu? Begiratu hemen.

**Apellidua abizendua**



**Konklusioa**  
 Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Prentsa orriko dokumentazioa**  
 Trialetxeak. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Baratzak**  
 Baratzak. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Urdiain**  
 Urdiain. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Lasarte-Oria**  
 Lasarte-Oria. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Hemeri**  
 Hemeri. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Urdiain**  
 Urdiain. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

**Usurbil**  
 Usurbil. Zure abizendua euskaratu nahi baduzu, **buruntzaldea.org** webgunean zure abizendua euskaratu dezakezu.

## Lantegian euskaraz plana egiteko, nondik hasi behar dut?

**Lan mundua**



Buruntzaldean enpresa hauek dute euskaraz plana:

- Euskaraz bizi
- Euskaraz bizi
- Euskaraz bizi

## Kartan nola jarriko zenuke Redondo en salsa euskaraz? Hemen galdetu.

**Redondo en salsa euskaraz**

**Enpresa hauek dute euskaraz plana:**

- Euskaraz bizi
- Euskaraz bizi
- Euskaraz bizi

**Enpresa hauek dute euskaraz plana:**

- Euskaraz bizi
- Euskaraz bizi
- Euskaraz bizi



# Tapa k eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2008 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2008ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## 2008



307-349 zenbakiak